

Memoria
2022-2023
Donostiako Emakumeen Etxea



Donostiako
Emakumeen
Etxea

Memoria
2022-2023

2022/2023 ikasturteko memoria.
Donostiako Emakumeen Etxea.

Edizioa, maketazioa eta diseinua: Kalaka Koop. Elk. Txikia
Argazkiak: Itziar Bastarrika
Inpresioa: Leitzaran Grafikak
Donostia 2023



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN

Aurkibidea

5 Aurkezpena

6 Organigrama

7 Elkarrizketa

10 Erabiltzaileei buruzko datuak

13 Aurrekontua

14 Hobekuntzak

15 Zerbitzuak

19 Elkarguneak

23 Matraka guneak

29 Formakuntzarako blokeak

36 Ekintzak



Aurkezpena

COMISIÓIN DE

AJEDREZ

- Emakumezko xake jokariak sortzea eta bultzatzea du helburu talde honek. Trebatzeko nahiz ongi pasatzeko elkartzeko dira.

- El grupo tiene como objetivo la creación y el fomento de mujeres jugadoras de ajedrez. Se reúnen en La Casa para aprender y pasárselo bien.

BATZORDEA

BATUKADA

- Espazio publikoa hartzeko emakume banda
- Ahalmen sortzaileak garatzea
- Banaka eta kolektibo bezala ahalduntzea

- Banda de mujeres para ocupar el espacio público
- Desarrollo de capacidad creativa
- Empoderamiento individual y colectivo

BATZORDEA

BLOKEA

- Donostiako Emakumeen Etxeko Blokea sortu deialdi feminista eta Etxea bezala ateratzeko
- Bloke bat sortu salaketa feminista desberdinak antolatuz eta proposatu ahal izateko, eta Etxea bezala kaleak hartu ditzagun

- Generar un bloque de la Casa de las Mujeres para salir como Casa a las diferentes convocatorias feministas

- Generar un bloque de organización y propuesta de diferentes iniciativas de denuncia feminista para tomar las calles como Casa de las Mujeres de Donostia

BATZORDEA

ARTIKULAZIOA

- Tailerren proposamenak
- Aurrekontuaren banaketa
- Elkartearen urteroko ebaluazioa

- Propuesta de talleres
- Distribución del presupuesto
- Evaluación anual de la asociación

EMAKUMEEN ETXEA // CASA DE LAS MUJERES

BATZORDEA

DANBORRADA

- Donostiako jaietan emakumeen partehartzea sendotu
- Danborrada feminista sortu eta mantendu
- San Sebastian egunean espazio publikoa feminismoz okupatu
- Fortalecer la participación de las mujeres en las fiestas de la ciudad
- Crear y mantener una tamborrada feminista
- Ocupar de feminismo las calles el día de San Sebastián

BATZORDEA

TEKNOLOGIA

- Emakumeen alfabetatze digitala
- Teknologiaren erabilera kritikoak sustatzea
- Mugimendu feministari tresna digitalak eskaintzea
- Alfabetización digital de mujeres
- Fomentar un uso crítico de la tecnología
- Ofrecer herramientas digitales al Movimiento Feminista

COMISIÓIN DE

ANTIAGRESIONES

- Indarkeria matxistaren inguruko hausnarketa eta ekintza feminista
- Administrazioa jotzen duten emakumeen egoera hobetzea
- Reflexión y acción en torno a la violencia machista
- Mejorar la situación de las mujeres que acuden a la administración

BATZORDEA

ZINEA

- Eztabaida eta hausnarketa feminista sustatu
- Zine feminista jaialdia bultzatu
- Emakume zinegileak ikusarazi
- Generar debate y reflexión feminista
- Impulsar festival de cine feminista
- Visibilizar mujeres cineastas

KOGESTIOA // COGESTIÓN

KUDEAKETA KONPARTITUA // GESTIÓN COMPARTIDA



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Berdintasuna
Igualdad



KOLECTIBO O'EMAKUMEEN ETXEA ELAKORTU
PROPOSICIÓN COLECTIVA DEL MOVIMIENTO FEMINISTA

FINANZATZEN DU // FINANCIA
LEGE BABESA // SOPORTE LEGAL
EMAKUMEEN MUGIMENDUARI LAGUNTZA
APOYO AL MOVIMIENTO DE MUJERES

BAZKIDEEN INDARRA // FUERZA DE LAS SOCIAS
700 BAZKIDE // 700 SOCIAS
PROGRAMAZIOA ETA KUDEAKETA
PROGRAMACIÓN Y GESTIÓN
MUGIMENDU FEMINISTA HAUNDITU ETA INDARTU
FORTALECER Y AUMENTAR MOVIMIENTO FEMINISTA

Elkarrizketa

Sorginbandako kideak:

Aden, Akote, Arantza S., Asun, Aurora, Belén, Ester, Gemma, Igone, Inma, Karrmele, Kontxi, Marian, Miren, Rakel, Saioa, Sara, Silvia, Txaro eta elkarrizketa erantzun duten Arantxa Arrieta eta Nekane Benavente.

Noiz sortu zen Emakumeen Etxeko batukada feministako batzordea?

Duela 11 urte. Hasieratik Emakumeen Etxearekin oso lotuta egon gara eta batzorde bat bere horretan ez garen arren, lotura handia dugunez, gu biok (Arantxa Arrieta eta Nekane Benavente) gara koordinadorako bileretara goazenak eta gero Sorginbandako kideekin partekatzen dugu bertan landutakoa.

Zergatik ikusi zenuten koordinakundean parte hartzeko beharra?

Sorginbanda etxetik sortu zen proiektua izan zen. Kalean feminismoa beste era batera zabaltzeko helburua zuen proiektu bezala sortu zen. Ikastaro formatuan abiatu zen, formatzaile batzuekin -eta jarraitzen du-, eta talde finko bat mantendu da denboran. Emakumeen Etxearekin dugun lotura kontuan izanda, koordinakundeko bileretara hasieratik joan gara, Emakumeen Etxeko dinamikan egotea ezinbestekoa iruditu zaigulako taldearen sorreratik.





Zuen ibilbidearen momentu garrantzitsuenak zeintzuk direla esango zenukete?

Sorginbanda Euskal Herriko hirugarren batukada feminista izan zela esan dezakegu, Ondarrukoa eta Bilbokoaren ostean. Hasieran gutxi ginen, baina, gerora, batukada gehiago sortzen joan dira eta saretzea ezinbestekoa izan da. Duela 7 bat urte, gutxi gorabehera, Batukaden sare feminista osatu genuen elkarren berri izateko eta ibilbide honetan sendo mantentzeko. Gipuzkoako beste batukada feministekin dugu harreman estuena, gertutasunagatik. Sarerik gabe, ezingo genituzke antolatu Lilatoiko ekintza, adibidez, 80 elkartzen baikara eta Sorginbanda bakarrik bertaratuz gero, ez litzateke izango gaur egun dena. Edota Martxoaren 8an, Azaroaren 25ean egiten ditugun ekintzak. Horietarako sareko kideek parte hartzea oso garrantzitsua da.

Saretzeaz gain, topaketak antolatzen hasi ginen momentua ere ibilbideko beste une gako bat izan zen. 7 topaketa egin ditugu orain arte.

Azpimarratzeko moduko beste momentu bat, autogestionatzen hasi ginenean izan zen, duela 4 urte. Azkenaldian leku askotatik deitzen hasi zitzaizkigun parte hartzeko eskaerak eginez eta gure formatzaileentzat ezinezkoa zen horietara guztietara bertaratzea; beraz, talde egonkorreko batzuk nola zuzendu ikasi genuen eta, formatzailerik gabe, kalera ateratzeko gaitasuna eman digu horrek. Horrela, ekintza feminista edo sozial txikiagoetatik bertaratzeko eskaera iristen bazaigu, talde osoarekin edo sarearekin joan behar izan gabe, gai gara talde autogestionatua joateko. Talde autogestionatuan egoteko eskatzen dena da norberak bere instrumentua jotzen jakitea, zuzendari garenok norberaren



instrumentua jotzen eta zuzentzen baitakigu, baina, ez dakigu instrumentu guztiak nola jotzen diren. Hau da, talde autogestionatuaren helburua ez da irakastea, horretarako ikastaroa dago. Une honetan 20 pertsona inguru gaude talde autogestionatuan.

Azkenik, 10. urteurreunean (2022ko urriaren 1ean), Antiguana jaia egin genuen eta guretzat oso une garrantzitsua izan zen. Bi ariketa nagusi egin genituen: alde batetik, talde autogestionatuko zuzendariok sare osoa zuzendu genuen, ahalduz ariketa potentia izanik. Bigarren ariketa burutzeko, sareari eskatu genion abesti bat aukeratzeko, musika aldatu eta letra jartzeko. 5-6 talde izan ginen, bakoitza abesti batekin. Oso ariketa potentia izan zen. Hunkigarria izan zen ospakizuna.

Zer landu ohi duzue urtean zehar?

Dinamikak egiten ditugu entsegua hasi aurretik. Formatzaileak proposatzen ditu feminismoa, elkarzaintza, kohesioa, elkarren arteko komunikazioa lantzeko dinamikak, besteak beste.

Entsegua hasi aurretik norberaren izena eta une horretan dugun emozioa adierazten dugu eta entseguaren ostean berriz. Deigarria da, guztiz aldatzen baitira erantzunak.

Irteerak ere egiten ditugu, lehen aipatu dugun bezala, sarearekin batera edota talde autogestionatuko kideek egin ohi ditugu; momentuaren eta eskaeraren arabera.

Etorkizunerako zein asmo duzue?

Kohesioa lantzeko garrantzia ematen diogu eta baita elkar zaintzari ere. Eta kalean pozik, batzuetan amorruez, gure soinua zabaltzeko ere.




Erabiltzaileei buruzko datuak

2022-2023 ikasturtean, 27 tailer eskaini ditugu; horietan 654 emakumek eman dute izena, eta 6 topaketa-talde, horietan 115 emakumek parte hartu dute. Zerbitzuei dagokienez, uztailera arte, 1056 hitzordu erregistratu dira.

Ohikoa den bezala, erabiltzaileen datu orokorrak aztertuko ditugu, bai zerbitzuei dagozkienak, bai ikastaroek dagozkienak, (hemen tailerrak eta ahalduzko taldeak barne hartzen ditugu), eta batzuen eta besteen artean desberdintasun esanguratsuak badaude, aipatu egingo ditugu. Zerbitzuak erabiltzeaz gain ikastaroetan ere parte hartu duten emakumeen ehunekoa apala da oraindik (%6,9), nahiz eta apur bat igo den aurreko ikasturtearekin alderatuta.


Erabiltzaileen bizilekua aintzat hartuta, ikusten dugu Gipuzkoako gainerako lurraldeetako erabiltzaileen ehunekoa behera egiten jarraitzen duela, aurreko ikasturtean %28,38 izatetik %26,85 izatera, ziurrenik probintzian Emakumeen Etxe berriak agertu direlako.

Erabiltzaileen bizilekua:



Adin-tarteak aurreko ikasturtekoaren antzekoak dira, eta 26-55 adin-tartekoak dira nagusi % 22 inguru dira (26-35 adin-tartean beherakada egon bada ere). Tarte horietatik kanpo, 26 urtetik behera, erabiltzaileen kopuruak behera egiten jarraitzen du, eta 65 urtetik gora, berriz, pixka bat gora.

Erabiltzaileen adina:




Adinaren aldagaian aldeak ikusten dira oraindik zerbitzuen erabiltzaileen eta ikastaro eta tailerretako parte-hartzaileen artean. Zerbitzuen erabiltzaileen artean, 36-45 bitarteko tartea da nagusi (erabiltzaileen % 25), eta jaitsiera nabarmena ikusten da, aurreko ikasturtean baino txikiagoa bada ere, 56-65 tartean, hau da, zerbitzuen erabiltzaileen % 13,5. Ikastaroetan, aldiz, 46-75 bitarteko tartea da ugariena, eta hiru tarte horiek erabiltzaileen ia % 59 biltzen dituzte. Horrela, ikastaro eta tailerretan parte hartzen dutenen

batez besteko adina bi urtean igo da aurreko ikasturtearekin alderatuta, eta 50,3 urtekoa da. Zerbitzuen erabiltzaileena, berriz, 2 urtean jaitسي da, 43,5 urtera.

Egindako ikasketei dagokionez, zifrak aurreko ikasturteetakoan antzekoak dira, unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeak baitira nagusi argi eta garbi (%49,31). Bigarren postuan bigarren mailako ikasketak egin dituzten emakumeak daude (%24,5) eta hirugarrenean Lanbide Heziketako ikasketak egin dituztenak (%13,44).

Erabiltzaileen ikasketak:




Hala ere, atal honetan ere alde nabarmenak ikusten dira zerbitzuen eta ikastaroen eta tailerren artean. Ikastaro eta tailerretako parte-hartzaileen bi heren baino gehiago (%70,28) unibertsitate ikasketak dituztenak dira oraindik ere; aldiz, zerbitzuen erabiltzaileen parte-hartzaileen artean, unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeak herena baino ez dira (%34,68), eta beste heren bat bigarren mailako

ikasketak dituztenak dira (%34,55). Ikastaro eta tailerretan, azken horiek, %10 baino ez dira.

Erabiltzaileen lan-egoerari dagokionez, besteren kontura lanaldi osoz kontratatutako emakumeak dira nagusi oraindik ere, ia %30 baitira, eta bigarren postuan jarraitzen dute langabezian dauden emakumeak, %25,50 baitira egoera horretan daudenak. Era berean, deigarria da norberaren konturako langileen ehuneko txikia, %4,28 baita.

Erabiltzaileen lan-egoera:




Aurreko ikasturtean bezala, emakume gehienek ikastaro batean (%70,50) edo bitan (%18,88) parte hartzen dute. Zerbitzueta jotzen duten emakumeen ehunekoa antzekoa da, eta horietako gehienak behin edo 2 aldiz joaten dira.

Erabiltzaileen artean, Emakumeen Etxea elkarteko bazkideen ehunekoa pixkat igo da (%24,22tik %26,9ra). Bazkide kopuruari dagokionez alde nabarmenak daude oraindik ere, ikastaroetako eta topaketa-taldeetako parte-hartzaileen artean, %41, 92 bazkideak


dira, eta, zerbitzuen erabiltzaileen artean, %13,09 baino ez (nahiz eta azken kopuru hori nabarmen handitu den azken ikasturtearekin alderatuta).

Bazkideak:



Erabiltzaileen jatorriari dagokionez, eta datu orokorrak kontuan hartuta, ia 5 puntu igo da Ameriketatik etorritako erabiltzaileen ehunekoa, eta 3 puntu jaitsi da Espainiako estatutik etorritakoena. Afrikatik etorritakoena ere jaitsi da (Marokokoak gehienak), Europako gainerako herrialdeetako zifra oso antzekoa da, eta Asiakoak, berriz, gora egin du. Amerikatik datozenen artean, gehienak Kolonbiakoak dira (%20,15), Nikaraguakoak (%19,90) eta Hondurasekoak (%18,64); eta gainerakoak Venezuela, Peru, Ekuador eta Boliviakoak dira, besteak beste.

Erabiltzaileen jatorria:



Aldagai hori da, hain zuzen ere, zerbitzuen erabiltzaileen eta ikastaroetan parte hartzen dutenen arteko alderaketa egitean, alderik handiena sortzen duena. Zerbitzuen erabiltzaileen artean, %67,42 Amerikatik dator, eta nazionalitateen arteko banaketa aipatu berri dugunaren berdina da. Aldiz, ikastaroetan parte hartzen dutenen artean, %18,57 baino ez da Amerikakoa, eta %72,41 Espainiakoa.

OHARRA: Guztira, 1310 emakumek osatutako unibertsoa izan dugu aztergai. Hala ere, horien guztien fitxa osoak falta ditugunez, alderdi bakoitza aztertzean eskura dugun informazioa erabili dugu. Horregatik, emakumeen guztizkoa alda daiteke alderdi batetik bestera.

Aurrekontua

Hurrengo taulan jaso dugu Donostiako Udalak Emakumeen Etxeari egiten dion ekarpen ekonomikoa. Horrez gain, udaleko langile bat dago Emakumeen Etxeko koordinazio eta dinamizazio lanak egiten lanaldi osoan.

1. Emakumeen Etxea Elkartarekin hitzarmena:

Hitzarmena Emakumeen Etxea espazioa dinamizatzeko arratsaldetan 68.000,00

2. Pertsonala:

Udal langileak goizetan espazioa dinamizatzen dutenak 57.745,62

3. Ikastaroak, ahalduntze taldeak eta zerbitzuak

Autodefentsa ikastaroak 4.448,00
Indarkeriarik gabeko Bizitzaren aldeko Emakumeak 8.360,00
Kultura aniztasuneko taldea 7.077,60
Literatura taldeak 4.673,00
Lege aholkularitza 4.900,40
Aholkularitza juridikoa eta gizarte eskuhartzea 4.730,17
Laguntza psikologikoa 8.940,00
Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua eta neska gazteentzako jabeakuntza gunea 11.589,32
Etxeko langileentzako aholkularitza 5.250,59
Gizarte aholkularitza 2.997,50
“Iguálate” ikasketak homologatzeko zerbitzua 5.768,10
Aholkularitza laguntza taldea 2.574,00
Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea 7.432,60
Xilografia (linoleo gainean): sormena tailerra 4.215,00
Udako ikastaroak 1.513,40

4. Eraikinaren mantenua

Gastu korrontea (telefonoa, garbiketa, fotokopiak, argindarra, komunitatea, konponketa txikiak) 48.000,00
Obrak: etxearen margoketa 10.135,60

5. Komunikazioa

Argazkiak eta bideoa 5.363,60
Egitarrak: diseinua, maketazioa eta inprenta 1.875,50
Urteko memoriaren argitalpena: diseinua eta inprenta 4.162,40


GUZTIRA:

279.752,40€

Ekarpen honez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere ekarpen garrantzitsua egiten dio Emakumeen Etxea Elkarteari: 40.000€-ko diru laguntza ematen dio, eta horri esker egiten dira emakumeen zine ikustaldiak Antzoki Zaharrean, ikastaroak, tailerrak, jardunaldiak, hitzaldiak, batukada, denbora bankua, difusio kanpaina, urteroko festa eta abar.


Emakumeen Etxeko hobekuntzak

Etxearen margoketa



Sala polibalentea itxi ahal
izateko atea eta panel
mugikorak jarri dira





Zerbitzuak

Arreta eta bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera
Emakumeen Etxeko bertako baliabideetara
edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea: Emakumeen Etxeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera 10:00 – 21:00.

Hitzordurik gabe.

Aholkularitza juridikoa eta gizarte esku-hartzea

Honako tramite hauek egiteko
laguntza: espetxe eta zigor zuzenbidea;
atzerritartasuna; lan-zuzenbidea; genero
indarkeria; hirugarren adina (erretiroa,
pentsioa, alarguntasuna...).

Asteazkena, 16:00 - 18:00. Hitzorduekin.

Etxeko langileentzako aholkularitza

Eskubideak eta betebeharrak, soldatak,
kontratu motak, oporrak, egun eta ordu
libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak...
inguruko aholkularitza.

*Telefono bidez eta presentzialki 87 emakume
artatu dira; horietatik 79 kanpokoan edo
barnekoan erregimenean zeuden, eta 8
enplegatzaileak ziren.*

*Artatutako emakumeetatik 6 Euskal Autonomia
Erkidegokoak ziren, eta gainerakoak
atzerritarra. Jatorrizko herrialdeei
dagokienez, Honduras, Nikaragua, Peru,
Kolonbia, Paraguai, Bolivia, Ekuador,
Dominikar Errepublikak eta Errumaniatik
zetozen.*

*Kontsultak honakoak izan dira batez ere:
atzera egitea eta/edo kaleratzea, likidazio eta
kitapenak berrikustea, eta kasu batzuetan
baita horiek idazten laguntzea ere. Azkenik,
Adiskidetze-orriak idaztea.*

*Etxeko enpleguari buruzko legeriaren
erreformari buruzko aholkularitza zabala
eman da. Emakume askok langabetuentzako
dirulaguntzaren aitopenez galdetu dute.*

*Egileak: Ana Lopez eta SOS Arrazakeria
Astelehena, 16:30-18:30. Hitzorduekin.*

Gizarte aholkularitza

Askotariko informazioa eta aholkularitza:
gizarte laguntzak, etxebizitza, formakuntza
edota enplegua.

*Aholkularitza, laguntza eta orientazio
funtzioak bete ditu Gizarte Laguntzako
Programak. Halaber, sareko lana egin da
Etxeko beste zerbitzu batzuekin eta kanpoko
erakundeekin, hala nola Caritasekin edo
Gurutze Gorriarekin, muturreko kasuetan.*

*Sarritan artatu dira oso egoera zailetan bizi
diren emakumeak: baliabide falta, lanik eza,
osasun mentaleko arazoak edo indarkeria
matxistako egoerak.*

*Aipatzekoa da egoera administratibo
irregularrean bizi izan dituzten baldintza
gogorrak; askok galdu egin dituzte ezkutuko
ekonomiako lanak, inolako eskubiderik gabe,
eta lana aurkitzea ere kostatzen ari zaie,
nahiz eta azken hilabeteetan egoera nahiko
normalizatu den.*

*Zuzenean artatutako emakumeak: 121
Jarraipena eta laguntza: 300
Koordinazioa: 33*

*Egilea: Rosa Ugalde Urbistondo
Asteazkena, 16:00 - 18:30. Hitzorduekin.*

Laguntza psikologikoa

Metodo interaktiboak erabiliz, espaziora joaten diren emakumeen baliabide indibidualak aktibatzen saiatu gara. Helburua prebentzioa, larrialdietan eustea, aholkularitza eta ahalduntzea dira.

Emandako arreta kopurua: 76. Zerbitzu horretara jotzen duten emakume gehienak egoera ekonomiko larrian daude, zaurgarritasun handia dute osasun mentalean eta sare sozial eskasa dute. Arazo psikologikoen artean, hauek dira nagusi: familia barruko abusua, tratu txar psikologikoa, mendekotasun ekonomikoa, antsietatea, seme-alaben kalteberatasunagatik erabakiak hartzerakoan dagoen blokeoa, antsietatea, senarrak hartutako zorrak, bortxaketa, agorafobia, lan-ustiapena eta erakundeen babesgabetasuna.

Mendetasun ekonomikoa eta gizarte-isolamendua, batez ere emakume amen kasuan, landu beharreko alderdi garrantzitsuenetako bat da.

*Egilea: Maite Santamaría
Asteazkena, 10:00-14:00. Hitzorduekin.*



Biluzik mundura

Sexualitatearen inguruko informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

2022eko irailetik 2023ko uztailera, guztira 174 kontsulta jaso dira. Horien % 33,3 presentzialki izan dira eta % 66,66 Instagram bitartez. Zerbitzura jo duten pertsona gehienak emakumeak izan dira, % 79,99 (N=139); gizonak, aldiz, % 17,2a (N=30).

Bitarrak ez diren bi pertsonari eta generoa adierazi ez duten hiruri ere eman zaie arreta.

Zerbitzu presentziala

Zerbitzura etorri diren pertsona guztiak emakumeak izan dira. Etorri diren pertsonen

adin tartea zabala izan da, 16 urtetatik 50 urtetara. Gazteak etortzeaz gain, hauen gurasoak ere hurbildu dira zerbitzura. Kasu batzuetan alabak genero indarkeria jasaten duelako laguntza eske, beste batzuetan sexu heziketa jasotzeko interesarekin.

Presentzialki jasotako kontsultak gai ezberdinen ingurukoak izan dira, horiek 7 kategoriatan sailkatu ditugu: eraso sexualak, TCA, bakardadea, genero indarkeria, edertasun ereduak, depresioa eta sexualitatea.

Instagram

2022ko irailetik 2023ko ekainera, Instagram bitartez 113 kontsulta jaso dira guztira. Horietatik 78 (% 69) emakumeek eginak dira, 30 (%26,5) gizonenak, bi ez bitar eta hiru pertsonak ez dute inolako informaziorik eman.

*Egilea: Lahia 3.0 sexologia elkarte
Astelehena, 17:00-20:00. Hitzorduekin.*



Parekatu

Ikasketak eta prestakuntza-ibilbideak homologatzeko aholkularitza.

Horra artatutako pertsona kopurua: 191 emakume eta 9 pertsona ez bitar. Horietatik 161 Latinoamerikako herrialdeetatik datoz (Nikaragua, Honduras, Venezuela, Kolonbia, Brasil), gainerako 39ak Europatik (Espainia, Errumania, Bielorrusia eta Ukraina), Afrikatik (Aljeria, Maroko, Nigeria eta Senegal) eta Asiatik (Afganistan, Mongolia eta Vietnam).

Oro har, zerbitzuek erabiltzaileen eskaerak betetzen dituzte. Hala ere, izapideak egiterakoan zenbait zailtasun izaten dituzte eta, horregatik, zerbitzu gehigarriak gehitzen jarraitu da:

1.- Eten digitala: administrazioarekin egin beharreko izapide guztiak telematikoki egin behar dira, eta horrek zaildu egiten du artatzen ditugun erabiltzaileen % 80ek izapide horiek eskuratzea. Horregatik, laguntza-orduak

luzatu ditugu, eta ordu gehiago eman ditugu emakumeak trebatzen, izapide horiei aurre egiteko baliabideak emango dizkieten tailer txikiak eginez.

2.- Arreta handitzea, IKTak erabiliz: erabiltzaileen % 80ek lanorduak murriztu dituzte, eta horrek zaurgarritasun handiagoa eragin die. Denbora librean enplegua bilatzeko erabili behar izan dute. IKTen bidezko arreta zabaltzeak erraztu egiten du informazioa ahalik eta emakume gehienengana iristea.

3.- Osasun arloko emakume profesionalez osatutako bi taldeen jarraipena eta laguntza: erizainen taldea (23 emakume) eta medikuen taldea (48 emakume), beste ibilbide batzuk dituzten emakumeak 46 izan dira.

4.- Zaintzeko ikasi kanpaina: Emakumeek profesionaltasun-ziurtagiri bat aurkezteko duten beharraren ondorio izan da (mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitariao gizarte-erakundeetan). Kontratazioarako ezinbesteko baldintza da, bereziki, Aldundiak kudeatzen duen Laguntza Pertsonalerako Laguntza Ekonomikoaren (LPPE) baldintzapean badago.

Kanpaina 2022ko abenduaren 31n amaitu da. Hala ere, aparteko gaikuntza lortzeko baldintzak betetzen dituzten emakumeei arreta ematen jarraitzen dugu.

Gipuzkoan 691 emakumek dute ziurtagiria lortzeko beharra, Donostian 163k. Kanpaina horren bidez, Donostiako Emakumeen Etxean, 283 zenbakian, arreta eman da.

5.- Kontziliatzeko zailtasunak. Unibertsitateaz kanpoko ikasketak homologatzeko izapideak amaitu ondoren, Lanbideren ikastaroetara sartzeko ordutegia mugatua da.

Bestalde, azpimarratu behar da gurerak bideratu dituzten kasuak % 57 igo direla Lanbide eta Oinarriko Gizarte Zerbitzuak bezalako erakunde publikoetatik. 157 emakume bideratu ditugu etxeko ahalduentze zerbitzu edo

taldeetara, esku-hartze integrala eskaintzeko.

Egilea: Bidez Bide

Osteguna, 10:00-13:00. Hitzorduekin.



Lege aholkularitza

Familia zuzenbidea. Lanerako zuzenbidea. Atzeritartasuna. Genero indarkeria.

229 emakume artatu dira; horietatik 73 indarkeria matxistaren eta/edo sexu-erasoen biktimak izan dira. Aurreko urteetan bezala, banantzeari edo dibortzioari buruzko kontsultetan ikusi da hainbat tratu txar kasuak direla, nahiz eta emakume batzuek tratatu nahi ez duten edo ez duten beren bikote kideen aurkako ekintza penalik hasi nahi izan.

Atzeritartasunari buruzko kontsultek gora egiten jarraitzen dute. Beste kontsulta mota batzuk honako gai hauei buruzkoak izan dira: irabazpidezko likidazioak, banantzeak/ dibortzioak, seme-alaba adingabeen zaintza eta babespea, elikadura-pentsioak ez ordaintzea, bisita-erregimeneko ez-betetzeak, jaraunspenak, lana (kaleratzeak eta erretiroa), alokairuak, aitasuna (aitorpenak edo aurkaratzeak).

Emakume askori hitzorduak eskatu zaizkie doako laguntza juridikorako, atzeritartasunerako edo beste edozein erakunde publikorako; izan ere, pandemiatik izapide asko telematikoki egiten dira eta emakume askok zailtasunak dituzte Interneten sartzeko.

Egilea: Emakume Bananduen Elkartea

Asteazkena, 19:00-21:00. Hitzorduekin.



Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Asteazkena. Doako erabilera.

Ordutegia: 10:00 - 21:00



Elkarguneak

Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeen talde-espazioa da, astean behin biltzen dena (librea). Autolaguntzako taldea da eta, askapenerako gako askotatik, indarkeriari irtenbideak bilatzen dizkio. Emakumeek konfiantzazko leku gisa deskribatzen dute, elkar ezagutzeko eta autoezagutzeko leku gisa, non ahalduztzeko tresnak, barne-saneamendurako tresnak eta beren bizitzaren kontrola berreskuratzeko balio dieten bideak aurki ditzaketen.

50 emakume bideratu dira espaziora. Adin-tartea 20 urtetik 66ra doa, eta jatorri askotarikoak dira. Emakumeak hainbat bidetatik gerturatu dira talde-espaziora: laguntza psikologikoko zerbitzuaren bidez, Gurutze Gorriko langileen bitartez, Etxera hurbiltzen direlako, edo Indarkeria Matxistaren Biktimaren Bidez. Emakumei Laguntzeko Zerbitzuaren bidez.

Berlaratu diren emakumeek hainbat indarkeria-mota dituzte: fisikoa, psikologikoa, sexu-indarkeria, ekonomikoa, instituzionala, sexista, birala, familia barruko sexista, indarkeria bikario, edo sistemikoa.

Hainbat dinamika, teknika eta gai landu dira. Horien bidez, emakumei lagundu zaie ahalduztzeari lotuta aldaketak izaten.

Jatorri askotariko emakumeentzako kulturarteko gunea

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea da. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta banakakoen eta taldearen lorpenak sozializatzen dituzte. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna eta baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagupen ekintzetan parte hartzen dute.

Parte-hartzaileak jatorri hauek dituzte: Hego Amerika, Erdialdeko Amerika, Afrika eta Europa. Hona hemen

Izena eman duten emakumeak: 27

Hizkuntza: gaztelania

Antolatzailea: Berdintasun saila

Dinamizatzailea: Katherine Astudillo Aillón (ENARAK Coop.)

Izena eman duten emakumeak: 27

Hizkuntza: gaztelania

Antolatzailea: Kultura

Aniztasuneko Atala

Dinamizatzailea: Aitziber Eguskiza

landutako gaietako batzuk: erresilientzia, zainketen eta etxeko lanen ekonomia feminista, etxeko eta zaintzako langileen eskubideak, enplegurako orientazioa, autoestimua, autozaintza eta erlaxazioa, entzute aktiboa, kohesioa eta konfiantza lortzeko dinamikak, indarkeria matxista, maitasun erromantikoa.

Emakume gehienak Udaleko Gizarte Zerbitzuek, beste atal batzuek eta Etxeak berak bideratuta etortzen dira. Espazioaren barruan, konfiantzazko espazio batean sentitzea lortu dute.

Batzuek sareak eraikitzea lortu dute; izan ere, gehienek ez dute pertsona ezagunen sare zabalik.

Emakume askok lotura dute edo izan dute Etxeko beste zerbitzu batzuekin. Sarean lan egin da, halaber, SOS Arrazakeria, Bidez Bide, Txiki Txoko, Ongi Etorri Eskolara eta Gurutze Gorria elkarteekin eta Udaleko Berdintasun Bulegoko langileekin.

Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea

Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko.

Hizkuntza: elebiduna
Antolatzailea: Berdintasun saila
Dinamizatzailea: Rosa Ugalde Urbiztondo (ELKARTU)

Taldeko zein banakako esku-hartzeak egiten jarraitu dugu.

Pirkanaka, bizi duten errealitate konplexua ulertzeko giltzarri diren gaiak lantzen dira, eta aldagaiak nola gurutzatzen diren eta horrek zaugarritasun handiagoa nola sortzen dien azaltzen.

Ekintza batzuek taldea eta emakumeekin egindako banakako esku-hartzea gaingiditzen dute, eta, beraz, Udaleko, Aldundiko eta beste baliabide batzuetako zerbitzu eta sailekin koordinatu behar izan da.

Bizi dituzten egoerak konponduko dituen arreta integrala lortuz bakarrik jarraitu ahal izango dugu lanean, emakumeen ahalduntzea lortzeko eta indarkeriarik eta desberdintasunik eta diskriminaziorik gabeko bizitza lortzeko.



Taldeko laguntza psikologikoa

Emakumeentzako talde-espazio bat da, banakako nahiz gizarte mailako egoera bereziki zaurgarrian daudenentzat. Gogoeta egiteko gonbita egiten duen gunea. Eta talde prozesu bat, nortasun tradizional haragitu hori eraldatu eta jasotako kultura-sinesmen, jarrera eta ohituren baliozkotasunari aurre egiteko modua ematen duena.

Izena eman duten

emakumeak: 28

Hizkuntza: gaztelania

Antolatzailea: Berdintasun saila

Dinamizatzailea: Maider

Andonegi

Parte-hartzaileek 26 eta 70 urte bitartean zituzten.

Kezka agertu dute eta gai zehatzei buruz hausnartu dute:

Doluak (banaketa, proiektu familiarra, etxe aldaketa); Bakardadea; Emozioen kudeaketa (tristura, amorrua, desengainua, beldurak...); Atrikimendu mota ezberdinak; Indarkeria zikloa eta motak; Bikote harremanak; Arnasketa eta erlajazio teknikak; Nire pertenezia jatorrizko familian; Autoestima eta autokontzeptua.

Horretaz gain, "Apoyo social percibido y niveles de ansiedad en mujeres víctimas de violencia de género" ikerketan parte hartu dute, eta gunetik kanpo elkarrekin partekatutako planak egiteko sare bat jarri dute martxan (kontzertuak, mendia, hainbat izapidetan laguntzea...).

Neska gazteentzako jabekuntza gunea

Neska eta genero anitzeko gazteei zuzendutako ahalduntze gunea da (15-20 urte bitartekoak). Feminismoarekin, diskriminazioarekin, ahalduntzearekin eta harreman parekideekin lotutako gaiak lantzen dira. Gune hau jabekuntza prozesu bezala planteatzen da.

Hizkuntza: elebiduna

Antolatzailea: Berdintasun saila

Dinamizatzailea: Itsaso Cañada Peña (Lahia 3.0)

Ahalduntzeko taldera hurbildu diren gazteen profila oso anitza izan da, 17-22 urte bitarteko 12 neska.

Hainbat gai direla-eta hurbildu dira neskak aurten taldera, hala nola genero-indarkeria eta sexu-abusuak jasan izan. Dena den, gehiengoak eskatzen zuena zen autoezagutza, autoestima eta autodefentsa feminista, eta gai hauetan sakondu da gehien.





Matraka
guneak

Antzerki laborategi feminista

Kontzientzia fisikoa, emozionala eta politikoa indartzeko gunea izan da hau, antzerkia tresna gisa hartuta. Gure gorputzetan eta bizipenetan ardaztuz, antzerki piezak edo eszenak sortu ditugu taldean, non ahalduntze indibiduala eta kolektiboa gure helburuetako bat izan den.

Aitziber Eguskiza

Izena eman dutenak: 27

Hizkuntza: elebiduna

Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte



Klown

Askotan ahaztu egiten zaigu jolasa eta barrea gure bizitzetan sartzea. Jolasak berreskuratzeak sentipen berriak ekarri dizkigu ikasturte honetan eta plazerarekin konektatu gaitu, algara arteko talde-harremanak sustatu ditugun bitartean. Klown teknika ezagutu dugu eta hori guztia umorearen ikuspegi feminista barneratuz.

Beatriz Egizabal
Paki Caballero

Izena eman dutenak: 32

Hizkuntza: elebiduna

Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte

Batukada feminista

Arantxa Vicedo
Ainara Sarasketa

Donostiako Emakumeen Etxeko Sorginbanda batukadak musika ikasteko gune bat sortu zuen, ikuspuntu feminista eta eraldatzaile batetik, non ikasteaz gain, emakumeon parte hartzea bultzatu nahi duen, kaleak gure instrumentuekin eta gorputzekin okupatuz, ekintza aldarrikatzaile desberdinen bidez borroka feminista babesteko.

Izena eman dutenak: 43
Hizkuntza: elebiduna
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



Koroa

Borroka ere abesten delako, Donostiako Emakumeen Etxeko taldeko kantu tailerraren proiektuak, Ederlezi abesbatzak, aurrera egin du aurten ere, feminismoak ehunduz ahotsen bitartez eta baita urtero lantzen dituzten abesti aldarrikatzaileen bitartez ere.

Bettina Aragón

Izena eman dutenak: 33
Hizkuntza: gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Xakea

Donostiako Emakumeen Etxeko Xakibazi xake taldeak leku berri batzuk ireki ditu ikasturte honetan, lehiaketetan parte hartu nahi izan duten emakumeei zuzenduta, xakean emakumeen presentzia bultzatzeko xedearekin.

Elisabeth Agirre
Leire Cruz

Izena eman dutenak: 29
guztira, bi taldetan.

Hizkuntza: elebiduna

Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte



Flamenko feminista

Beste urte batez, talde-giroan flamenkoa dantzatzeko ikasi dugu. Aitzakia ezinhobea izan da gorputza eta burua lantzeko, baita beste emakumeekin elkartrukea sortzeko ere.

Askoa Etxebarrieta
"La Pulga"

Izena eman dutenak: 39

Hizkuntza: elebiduna

Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte

IRAKURKETA FEMINISTARAKO GUNEAK

Zahartzeko manierak euskal literaturan

Azken aldian zahartzaroaren eta zahartzeko moduen inguruko literatur lan ugari argitaratu dira, guztietan ere gizarte egiturak eta zaintza sareak hizpide dituztenak. Irakurle-talde honetan zahartzeko manieren inguruko literatur lanak izan ditugu hizpide, betiere genero-ikuspegiak zahartzeko modu horiek nola zeharkatzen dituen aztertuz.



Iratxe Retolaza

Izena eman dutenak: 23

Hizkuntza: euskara

Antolatzailea: Donostiako Udala, Berdintasun saila

Irakurle eskola feminista

Era eta garai askotariko irakurketetatik abiatuta, feminismoari buruz euskaraz hitz egiteko elkartrukerako gunea izan da. Teoria klasiko eta garaikideei buruzko pentsamendu kolektiboa sustatu dugu, Euskal Herriari eta euskal kulturari buruzko pentsamendu kritiko-feminista garatu dugun bitartean.

Iratxe Retolaza

Izena eman dutenak: 32

Hizkuntza: euskara

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte

"Republicanas y anti-franquistas" ikastaroa

Carmen Laforet-ez gain, emakume askok idatzi eta argitaratu zituzten idazki errebeldeak, bai frankismo garaian bai lehenengo trantsizioan. Baina zentsurak lortu ez zuena ahanzturak lortu du: ia ez dakigu ezer idatzi haiei buruz. Editorial txiki eta bitxien berredizioei esker, haien ahotsak berreskuratu ditugu ikasturte honetan zehar.

Mertxe Tranche

Izena eman dutenak: 55

Hizkuntza: gaztelania

Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte

"Facitas y revolución" ikastaroa

Badago berezko ezaugarriak dituen emakumeek idatzitako literatura bat. Ingalaterran jaio zen XVIII. mendearen amaieran, eta munstroz, eremu mortuz, eromenaz eta sekretuz elikatu zen teiltupean.

Mertxe Tranche

Izena eman dutenak: 38

Hizkuntza: gaztelania

Antolatzaileak: Donostiako
Udala, Berdintasun saila

"Otras voces" ikastaroa

Gutako bakoitza munduari buruzko begirada bat gara. Begiratzeko modu asko daude, ikusten dena kontatzeko modu desberdinak dauden bezala. Batzuk gugandik hain urrun daudenez, badirudi beste mundu bat dela begiratzen dutena, eta hala izango da seguruenik. Ikastaro honetan, beste kontinente batzuetako emakumeak ezagutu ditugu, beste kolore batzuetakoak, beste kezka batzuetakoak, beste begirada eta ahots batzuk dituztenak.

Mertxe Tranche

Izena eman dutenak: 61

Hizkuntza: gaztelania

Antolatzailea: Donostiako
Udala, Berdintasuna saila



Farmakuntzarako blokeak

gaur egungo eztabaidaz hitz egin dezagun: feminismoaren subjektu politikoaz

Izena eman dutenak: 24
Hizkuntza: gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte
Formatzailea: Carmen Diez

Mugimendu sozial guztiek subjektu politiko bat behar dute. Mugimendu feministaren subjektu politikoa beti aritu da zabaltzen, baina feminismoaren zati batek gaur egungo proposamen batzuei kezkatik begiratzen die, haien ustez, “emakumeok” garen subjektu politiko hori desagertuko omen delako. Beste aldetik, fundamentalismoetatik hamarkadak daramatzate “genero ideologia”-ren aurka borrokatzen eta biologia gure patua dela aldarrikatzen. Horretaz guztiaz hitz egin dugu saio hauetan.



Zaurgarritasunetik eta komunikazio ez bortitzetik ahalduntzea

Izena eman dutenak: 20
Hizkuntza: gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte
Formatzaileak: Leticia
Urretabizkaia eta Kontxi Ruiz

Tailer honetan gune seguru bat sortu dugu, gure artean erlazionatzeko eta laguntzeko paradigma berri bat sortzeko xedearekin, indarkeria patriarkala alde batera utziz eta balore feministei eutsiz. Horretarako, Komunikazio Ez Bortitzarekin zerikusia duten baliabideak garatu ditugu: nola konektatu gure esperientzia emozionalarekin, nola garatu barrura entzuteko gaitasuna eta baita kanpora entzutekoa ere; eta zintotasunez nahiz egiazkotasunez hitz egitea ere landu dugu.

Begirada feminista bat gorputz ziklikoei eta ginekologiari

Izena eman dutenak: 11
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte
Formatzailea: Ara! Gorputz
Koop.

Auto behaketak ezinbesteko tresna dira errealitate samurragoak eraiki ahal izateko, eta honegatik saio hauetan norberaren barrenera bidaiatu dugu. Baina, Kultura Ziklikoa deritzogun alternatiba bizigarria eraikitzeko prozesuan, beharra sentitu dugu gure ingurumenari eta jendarte antolaketari ere erreparatzeko. Minak elikatzen dituzten faktoreak identifikatu ditugu, eta gure bide zidorrak eraiki ditugu gure errealitateetatik abiatu eta ditugun baliabideak erabiliz.

Sendabelarren tailerra

Izena eman dutenak: 31
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Emakumeen
Etxea Elkarte
Formatzailea: Bidatz Sasiain

Sistema heteropatriarkalak indibidualtasun zatituak sortzen ditu, gorputza adimenetik, lurraldetik dibortziaz, esperientzia zatikatua, dualizatua sortuz. Tailer honen bidez, gure gorputzak eta bizi garen lurraldeak pixka bat gehiago lotzea lortu dugu.

Tailer honetan Ahobizi edo Belarriprest diren pertsonak parte hartu ahal izan dute. Baldintza bakarra izena emateko euskara ondo ulertzea izan da.



Tratu onean oinarrituta maitatzea eta zaintzea

Espazio honetan, emakumeen topaketarako eta hausnarketarako talde bat jarri dugu abian; autoezagutzalana egin dugu, gure bizi-kalitatea hobetzeko, zoriontsuago izateko, zoriontasuna politikoa eta kolektiboa ere badelako.

Izena eman dutenak: 27
Hizkuntza: gaztelania
Antolatzailea: Donostiako Udala, Berdintasun saila
Formatzailea: Kontxi López Soria (Mara-Mara Elkarte)



Filofeministak: eredu filosofikoak garai atzerakoientzat

Tailer honetan emakume filosofoak agerian jarri ditugu eta, bide batez, filosofatzen eta banakako hausnarketak nahiz kolektiboak egiten ikasi dugu. Aurtengo tailerrean militantzia bikoitza eduki zuten emakume filosofoen ibilbidea egin dugu. Eskuinei eta faxismoari aurre egin zieten hiru emakumerekin hasi gara, hain zuzen ere, Aleksandra Kollontai, Emma Goldman eta Klara Zetkins. Eta gaur egungo filosofo batekin bukatu dugu, hots, Marcia Tiburi-rekin.

Izena eman dutenak: 23
Hizkuntza: gaztelania
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarte
Formatzailea: Marisa Hurtado

Xilografia (linoleo gainean): sormen tailerra

Guztiok sortzaileak gara egunero. Sentitzen dugun hori bideratzeko, xilografia landu dugu ikastaro honetan. Gure eskuek marraztu dute linoleoan unean sentitzen genuena, eta paperean azaldu izan zaigu horren islada, une horretako arnasa.

Tailer honetan Ahobizi edo Belarriprest diren pertsonak parte hartu ahal izan dute. Baldintza bakarra izena emateko euskara ondo ulertzea izan da.

Izena eman dutenak: 22
Hizkuntza: euskara
Antolatzailea: Donostiako Udala, Berdintasun saila
Formatzailea: Oihana Ugarte Iriarte



Autodefentsa feminista

Eraso matxistei aurre egiten ikastea eta kalean aske sentitu ahal izatea izan da autodefentsa ikastaroen helburu nagusia.

Izena eman dutenak: 100
Hizkuntza: euskara eta gaztelania
Antolatzailea: Donostiako Udala, Berdintasun saila
Formatzailea: Isa Bernal (Emagin).

Biodantza feminista

Tailer honetan, Biodantza Feministaren bidez, autoezagutza, norberaren zaintza, autoestimua, plazera, kementa, autoerregulazioa, taldearen babesa, sormena, bizipoza eta umorea lantzen ikasi dugu eta baita norberaren beharrak identifikatzen ere.

Tailer honetan Ahobizi edo Belarriprest diren pertsonen parte hartu ahal izan dute. Baldintza bakarra izena emateko euskara ondo ulertzea izan da.

Izena eman dutenak: 15

Hizkuntza: euskara

Antolatzailea: Emakumeen

Etxea Elkarte

Formatzailea: Belén Olaziregi

Hitzaren zuhaitzpean: aliantza feministak sortzen

Ikuspuntu dekolonial eta antiarrazista bidez, aliantzak sortzeko prozesuaren inguruko elkarriketarako gonbidapena izan da ikastaro hau. Horretarako, gure esparru teorikoak, praktikoak eta pribilegioak berrikusteko bideari ekin diogu. Gerora, guztiok bizitzeko gune feministak sortzeko estrategiak identifikatzeko, baita agenda inklusiboak eta eraldatzaileak sortzeko ere.

Izena eman dutenak: 12

Hizkuntza: gaztelania

Antolatzailea: Emakumeen

Etxea Elkarte

Formatzailea: Jeanne Rolande
Dacouagna.



UDAKO IKASTAROAK

Ballroom-aren hastapenak

Kulturarako hurbilketa dantza-pistatik Kiki House of Anunnakirekin

Kiki House of Anunnaki 2018an, Iruñean, ballroom kulturalaren esparruan sortutako kolektibo kultural, artistiko eta gizatiarra da. Ballrooma 70eko hamarkadaren amaieran sortu zen Harlemen (New York, AEB), bi emakume trans beltzen eskutik. Trans horiek erabaki zuten pertsona zuriek kontrolatutako LGTBI+ edertasun-zirkulu eta -lehiaketetan jasaten zuten zapalkuntzaz nekatuta, dibertitzeko eta komunitatea sortzeko gune propioak sortzea. Kultura hau ezagutzera emateko asmoz, Ballroomaren hastapen tailer hauek burutu ditugu pertsona ez binarioei, queerrei, transei eta bollerei zuzenduta.

Izena eman dutenak: 17

Hizkuntza: elebiduna

Antolatzailea: Donostiako

Udala, Berdintasun saila

Formatzaileak: Nefertiti

Anunnaki eta Mar Anunnaki

Boxeo feminista

Emakumeak boxeoaren bitartez ahalduntzea izan da ikastaro honen helburu nagusia. Horretarako, indarra, abiadura, boxeo teknikak eta koordinazioa landu dira ariketa ezberdinen bitartez.

Izena eman dutenak: 33

Hizkuntza: elebiduna

Antolatzailea: Donostiako

Udala, Berdintasun saila

Formatzailea: Ixa Rodriguez

Txirigota feminista tailerra

Txirigota feminista tailerrak Cadizko folklorea eta kultura Euskal Herrikoarekin uztartzen ditu. Horretarako, Cadizko txirigotak geurera ekarri eta sorkuntza ariketa bat planteatu dugu tailerrean: eztabaida eta hausnarketa kolektiboen bidez guri axola zaizkigun gaien inguruko txirigota bat sortzea. Ikuspuntu feminista batetik egindako talde-lana izanik, norberaren zein kolektiboaren ahalduntzea eta boteretzea lortu dira. Sorkuntza, musikalitatea eta geure buruen gaineko konfiantza landu dira, aldarrikapenez eta umorez betetako espazioan.

Izena eman dutenak: 18

Hizkuntza: gaztelania

Antolatzailea: Donostiako

Udala, Berdintasun saila

Formatzailea: Monica Nuñez



Ekintzak

Urria



I: Urteurren festa

Donostiako Sorginbandaren 10. urteurren festa Antiguon.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

II: Zineforum feminista

“Petite Maman”

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia



17: Elkartruke feminista

Peruko landa eremuko emakume lider feministen eta Donostiako emakumeen etxeko militante feministen esperientziak.

Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea, Donostiako Udaleko Berdintasun saila, CIPCA eta Egoaizia

18 eta 20: Jardunaldiak

“Sistema judizialarekiko proposamen eta alternatiba feministak” jardunaldiak.

Urriak 18:

Ikuspegi historikoa eta justizia feminista lortzeko ahalegina.

Hizlariak: Gloria Poyatos eta María Naredo

Urriak 20:

Justizia errestituatiborako proposamen feministak.

Hizlaria: Asun Urbieto

Moderatzailea: Merche Tranche

Antolatzailea: Erasoen aurkako batzordea

19: Saio informatiboa

Etxeko langilea edo/eta zaintzaileei bideratuta, saio informatiboa behin betiko gaikuntza eskatzeko epe berrien eta prozeduraren inguruan hitz egiteko.

Antolatzailea: Bidez Bide Elkartea

Laguntzaileak: Emakumeen Etxea Elkartea eta Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaroa

3: Ekitaldia

Cristina Peri Rossiren obrari buruz hitz egiteko eta hausnartzeko ekitaldi irekia.

Antolatzailea: Demoleedoras batzordea

7-9: Zinea

XI. jardunaldiak Emakumeek egindako zinemaz: Márta Mészáros.

Azaroak 7: "Neska" (1968)

Azaroak 8: "Bederatzi hilabete" (1976)

Azaroak 9: "Nire seme-alabentzako egunerokoa" (1984)

Antolatzaileak: Emakumeen Etxea Elkarteak, Tabakalera, Donostiako Udaleko Berdintasun saila eta Donostia Kultura.

16: Kanpaina

Emakumeen Etxe handiago bat lortzeko kanpainaren ekintzetako bat: batupoteoa. Sorginbanda-rekin batera atera gara etxe handiagoa aldarrikatuz.

Antolatzailea: Donostiako Emakumeen Etxeko Blokea

21: Tailerra

Zaintzazap bizipen tailerra: Indarkeria matxistei aurre egiteko zapatak eta norbere zaintza.

Dinamizatzailea: Angélica Naranjo Quiceno, Corporación para la Vida Mujeres que Crean Colombia-ko kidea

Antolatzaileak: Corporación para la Vida Mujeres que Crean Colombia eta Mugarik Gabe

Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Emakumeen Etxea Elkarteak

25: Manifestazioa

Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna

29: Liburu aurkezpena

"Piedras con alma" liburuaren aurkezpena, Bakartxo Aniz Aldasoro autorearen eskutik
Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkarteak.

29: Jardunaldia

"Ahotsak marjinan" jardunaldia, non Magreb-eko emakumeen errealitate jakin batzuk biltzen dituzten zenbait gai jarri ziren mahai ginean.

Emakumea eta generoaren auzia Magreben.

Naima Benaicha.

Emakumeen mugimenduak Marokon udaberri arabiarraren ondoren. Laura Mijares.

Ezkontza behartuak Espainiako estatuan. Maria Barcons.

LGTBI errefuxiatuak, eskatzaileak eta nazioarteko babes-premiak dituzten emakumeak Espainian. Nessrin el Hachlaf.

Antolatzaileak: Jatorkin, Emakumeen Etxea Elkarteak, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia.



Abendua



Urtarrila

20: Zineforum feminista

“Dios es mujer y se llama Petrunya”

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia



17: Zineforum feminista

“Cinco lobitos”

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

24: Jardunaldia

“Emakumeen ahotsak: Feminismoaren hastapenak Euskal Herrian eta emakumearen egoera frankismoan” izenburupean burututako jardunaldian bideo-emanaldia ahotsak.eus-en eskutik eta mahai-ingurua.

Mahai-inguruko partaideak: Miren Garmendia, Lola Valverde, Maite Gonzalez Esnal eta Iratxe Retolaza.

Antolatzaileak: Ahotsak.eus, Badihardugu elkarte eta Emakumeen Etxea Elkartea

26: Hitzaldia

“Zer gertatzen ari da “Soilik bai da bai” legearekin?” hitzaldia Maria Naredoren eskutik.

Antolatzaileak: Erasoen aurkako batzordea eta Emakumeen Etxea Elkartea



Otsaila

2: Asanblada

I. Asanblada irekia Martxoak 8-a antolatzeko.

Antolatzailea: Donostiako Asanblada Feminista

4: Kantujira

Santa Ageda bezperako kantujira Ederlezi abesbatzaren eskutik.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

13: Hitzaldia

“Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko estrategia komunitarioak Kolonbian” hitzaldia Yeni Tascón (OIA) eta Yohana Acosta Zapataren (ACIN) eskutik.

Antolatzailea: Mundubat.

Laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala eta Emakumeen Etxea Elkartea.

14: Kanpaina

Emakumeen Etxe handiago bat lortzeko kanpainaren ekintzetako bat: “San Tontolín” batupoteoa.

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea



21: Zineforum feminista

“Libertad”

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

Martxo



4: Mintegi-lantegia

“Biopics: idazle handiak, kontakizun txikiak”.

Programa:

1. Literaturaren eta zinemaren gaiari buruzko sarrera: emakumea, biografia eta Biopic-a.
2. “Iris” (2001) filmaren analisia.
3. Film hauen analisia: “Mary Shelley” (2017), “Sylvia Plath: Dentro de la campana de cristal” (2018) eta “Colette” (2018).
4. Ondorioak eta bateratze-lana.

Dinamizatzailea: Ana Zamorano

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

5: Lilatoia

6.000 emakumetik gora Donostiako kaleetan zehar.

6: Ikus-entzunezkoa

“Emakumeak blai” filmaren proiektzioa eta bere egilearen, Ane Zulaikaren, azalpenak mahai-inguruaren aurretik.

Antolatzailea: Berdintasun saila

7: Bideo emanaldia


“Emakumeen ahotsak: Emakumeak kulturgintzan: bertsolaritzan, musikagintzan eta literaturan”, bideo emanaldia eta ondoren mahai-ingurua emakumeek kulturgintzan duten egoeraren inguruan.

Antolatzaileak: Ahotsak.eus, Badihardugu elkarteak eta Emakumeen Etxea Elkartea



8: Manifestazioa

“Denon Bizitzak Erdigunean. Revolucionar los cuidados para cambiarlo todo. Revolutionerles soins pour tout changer”.



Martxoa

16, 23, 30: Tailerra

Defendatzaile eta aktibisten eskola.

Martxoak 16:

Artea eta sendatzea lurraldearen defentsan deskolonizatzeko tresna gisa.

Dinamizatzailea: Lucía Irchú. Festivales Solidarios.

Martxoak 23:

Intersekzionaltasuna, askotariko feminismoak eta sare eta aliantza inklusiboak.

Dinamizatzaileak: Soraya Ronquillo eta Katia Reimberg. Bidez Bide Elkartea

Martxoak 30:

Ongi bizitzea, gorputz eta askotariko aktibismoak.

Dinamizatzailea: Sara Alvarez Medrano, terapeuta soziala. Kqla Emakumeen Elkartea
Antolatzailea: Lumalitik

20: Dokumentala

“Nuestra libertad” dokumentalaren proiektzioa eta ondoren, Teodora Vasquez, dokumentaleko protagonistetako batekin, solasaldia.

Antolatzailea: Euskal Herriko Bilgune Feminista

21: Zineforum feminista

“Their finest”

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

30: Solasaldia

Benita Asas Manterolaren inguruko omenaldi-solasaldia bere jaiotzaren 150. urteurrenean.

Antolatzaileak: Demoleedoras batzordea eta Emakumeen Etxea Elkartea



Apirila



13: Jardunaldia

Idazkera migratzaileen jardunaldia

Dinamizatzaileak: Gabriela Wiener eta Rocío

Quillahuamán.

Antolatzailea: Bidez Bide Elkartea.

17: Tailerra

Aurretiazko borondateen dokumentua (ABD) egiteko tailerra

Dinamizatzaileak: DMD-DHEko kideak

Antolatzailea: Duintasunez Hiltzeko Eskubidea Elkartea (DMD-DHE)

17: Zineforum feminista

“The kindness of strangers”

Antolatzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

21: Bideo emanaldia eta solasaldia

Trans izatea, transfeminismoa eta transfobia feminismoan, bideo-emanaldia eta solasaldia.

Dinamizatzailea: Idoia Etxeberria

Antolatzaileak: Ahotsak.eus, Badihardugu elkarte eta Emakumeen Etxea Elkartea

24, 26: Jardunaldiak

“Proposamen feministak: Nahi dugun Donostia”.

Apirilak 24:

Berdintasun politikak Donostiako Udalean: balorazio eta proposamenak.

Hizlariak: Arantza González (Elkarrekin-Podemos),

Ane Oiarbide (PSE-EE), Olaia Duarte (EH Bildu)

Apirilak 26:

Mahai-ingurua.

Hizlariak: Édurne Aperribay, Hirigintza eta generoa;

Katia Reimberg Castelo – Soraya Ronquillo, emakume

zaintzaileak eta etxeko langileak; ELA sindikatua,

zahar etxetako langileen borroka; Mertxe Fernandez

Boga, Ekialde barrutiko berdintasun proiektuak;

Iratxe Retolaza, espazio komunitarioak eta emakumeen ahalduntzea.

Antolatzailea: Plazandreak.

Laguntzailea: Emakumeen Etxea Elkartea

28: Hitzaldia

“Gizarte zerbitzuen gehiegikeriak” hitzaldia, Consuelo García del Cid Guerra idazle eta ikerlariaren eskutik.

Antolatzailea: Emakume askeak



Maiatza

3: Asanblada irekia

Euskal Herriko mugimendu feministak martxan jarri duen prozesua Donostian lurreratzeko asanblada. Udazkeneko greba feminista antolatzeko asmoz.

Antolatzailea: Denon bizitzak erdigunean Donostia

18: Solasaldia

Ezin kabitu. Espazio komunitarioak eta eraldaketa feminista.

Hizlariak: Carmen Diez Mintegui (AFIT) eta Iratxe Retolaza (Emagin)

Antolatzailea: Emakumeen Etreko Bloke Batzordea

4, 11 eta 20: Informazio-hitzaldia

Lanbide Heziketan sartzeko baldintzak ezagutarazteko informazio-hitzaldia.

Antolatzailea: Bidez Bide Elkarte

18: Asanblada irekia

Euskal Herriko mugimendu feministak martxan jarri duen prozesua Donostian lurreratzeko asanblada. Udazkeneko greba feminista antolatzeko asmoz.

Antolatzailea: Denon bizitzak erdigunean Donostia

15: Omenaldia

Dolores Juliano Corregidoren omenezko elkartzea.

Antolatzailea: Donostiako Dolores Julianoren lagunak.

26: Hitzaldia

“Afrofeminismoari buruzko gogoetak”.

Hizlaria: Zinthia Álvarez Palomino (Afroféminas)


Antolatzailea: Afrika Behar Beharrezkoa

16: Zineforum feminista

“Una pastelería en Tokio”

Antolatzailea: Emakumeen Etreko Elkarte.

Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia



Ekaina



2: Hitzaldia

“Ez biktimak ez kriminalak: sexu langileak”.

Hizlariak: Amaia Lasheras, Arrats Elkarteko kidea, eta Carolina Clemente Villar, “Putxs en Lucha” kolektiboko partaidea.

Antolatzailea: Putxs en Lucha Kolektiboa

3: Asanblada irekia

Euskal Herriko mugimendu feministak martxan jarri duen prozesua Donostian lurreratzeko asanblada. Udazkeneko greba feminista antolatzeko asmoz.

Antolatzailea: Denon bizitzak erdigunean Donostia

20: Linea

“Las buenas compañías” making-of feminista.

Antolatzailea: Emakumeen Etreka Elkarteko Zine Batzordea

28: Manifestazioa

Sexu Askatasunaren aldeko Nazioarteko Eguna



29: Hitzaldia

“Emakumea eta lipedema”. Manifestuaren irakurketa.

Hizlaria: Miren Amaia Muru Aduriz

Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala eta Eusko Jaurlaritza

Laguntzailea: Emakumeen Etreka Elkartea

Antolatzailea: AGADELPRISE

Eskerrik asko
Emakumeen Etxea egiten
duzuen guztioi!

